



IKASTURTE HASIERA

Vitoria-Gasteizen, 2018ko urriaren 1ean

Familia horiek:

Urtero egin ohi dugun bezala, idazki luze honekin ikasturte berrirako ONGI ETORRIA eman, eta ikastolako hainbat informazio luzatu nahi dizuegu.

1. IRAKASLEOK

Hauek gara aurten zuen seme-alabekin lan egingo dugun tutore eta gainerako irakasleen izenak:

HAUR HEZKUNTZA

- **2 urte A:** Koro Martinez **2 urte B:** Gemma Carballares
- **Laguntzaileak:** Garbiñe Vazquez / Amagoia Suarez
Marta Ruiz de Azua
- **2 urtekoen jantokiko arduraduna:** Garbiñe Vazquez/Amagoia Suarez

- **3 urte A:** Kristina Etxebarria **3 urte B:** Ruth De la Torre
- **4 urte A :** Ines Gz. De Matauco **4 urte B:** Arantzazu Gallo
- **5 urte A:** Edurne Abasolo **5 urte B:** Saioa Pla
- **HHko laguntzaileak:** Ane Ayerbe Goretti Escalza

LEHEN HEZKUNTZA

- **1.A:** : Lurdes Aguirregabiria **1.B:** Nerea Otazua
- **2.A:** Alaitz Larrañaga **2.B:** Xabier Gonzalez
- **3.A:** Maixa Aranburu **3.B:** Pili Martinez de Lagos
- **4.A:** Iñaki fernandez **4.B:** Felisa Gonzalez / Amaia San Torcuato
- **5.A:** Enrike Arnaiz **5.B:** Amaia Auzmendi
- **6.A:** Joseba Gallastegi **6.B:** Maite Quintanilla
- **Laguntzailea:** Ane Ayerbe
Ruth Pousada

ESPEZIALISTAK

- **Ingelesa:** Mirian Fernandez
Lourdes Vicuña / Eva Maria Garcia (herena)
- **Gorputz Heziketa:** Marimar Goikoetxea / Joseba Martinez de Ilarduya (herena)
- **Musika:** Olatz Azpiazu
- **Aholkularia:** Iñaki Fz. De Pinedo

- **Hezkuntza Berezia:** Edith M. Gongueta (lanaldi erdia) / Jon Artaraz (lanaldi erdia)
Nerea Jimeno (lanaldi erdia)
Elisabete Arenaza
- **Hezitzailea:** Arantzazu Pinedo / Ainara Alonso
- **Jantokiko arduraduna eta laguntzailea:** Leo Igartua
- **Logopeda:** Jessica Amozarrain/ Beatriz Cordoba
- **Fisioterapeuta:** Ana Belén Sanz
- **Sare Hezkuntza:** Ruth Pousada
- **Laguntzailea:** Amaia iturriaga
- **ZUZENDARITZA TALDEA**
- **Zuzendaria:** Eva Maria Ortega Urabain
- **Ikasketa Burua:** Joseba Astola
- **Idazkaria:** Kepa Martinez de Albeniz

2. ORDUTEGIA

- Jardunaldi jarraian (goizez bakarrik)
 - GOIZEZ: 09:30etik 13:30era
- Jardunaldi arrunta (goizez eta arratsaldez)
 - GOIZEZ: 09:30etik 13:00era
 - ARRATSALDEZ: 15:30etik 17:00era

3. IRAKASLE ETA GURASOEN ARTEKO ELKARRIZKETAK

Edozein irakaslerekin hitz egin nahi izanez gero, bai Lehen Hezkuntzako nola Haur Hezkuntzako, hauxe da eguna (**aldez aurretik abisatzea eskatzen dizuegu**):

- Tutore bakoitzak zuen kurtsoaren hasierako bileretan esaten dizuen.

Bi gurasook eskubidea eta eginbeharra duzue zuen seme-alaben eskolako informazioa jasotzeko. Komeni da, beraz, biak etortzea.

4. GELAKO BILERAK

Hemen duzue ikasturte hasierako gelako bileren egutegia. Bilera gehienak arratsaldeko bostak eta laurdenetan izango dira. **Bi urtekoena, 15:45etan. Areto nagusian bilduko gara***

HAUR HEZKUNTZA

- 2 urte A eta B: *urriaren 3an*
- 3 urte A eta B: *urriaren 24an*
- 4 urte A eta B: *urriaren 9an*

LEHEN HEZKUNTZA

- 1. maila A eta B : *urriaren 2an*
- 2. maila A eta B : *urriaren 2an*
- 3. maila A eta B : *urriaren 4an*

● 5 urte A eta B: *urriaren 16an*

● 4. maila A eta B : *urriaren 4an*

● 5. maila A eta B : *urriaren 3an*

● 6. maila A eta B : *urriaren 3an*

5. EBALUAZIO-TXOSTENAK

Lehen hezkuntzan: ikasturtean zehar zuen seme-alabei buruzko hiru ebaluazio-txosten emango dizkizuegu, hiruhileko bakoitzaren amaieran.

1. Txostena: *abenduaren 19an*
2. Txostena: *apirilaren 12an*
3. Txostena: *ekainaren 20an*

Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko umeen gurasoei ebaluazio txosten bana emango dizuegu ikasturtearen amaieran, eta 4 eta 5 urteko umeen gurasoei bina txosten, otsailean lehena eta ikasturte amaieran bestea.

6. GURASO ELKARTEA

Ikastolan IKASBERRI Guraso Elkarte dago. Hilero elkartzen dira, hilaren azken ostegunean, 15:30etan eta bilerak irekiak dira. Edonor hurbil daiteke eta bertan parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizuegu. OSO GARRANTZITSUA DA ikastolako funtzionamendurako familien inplikazioa erakunde honetan.

Facebook: AMPA Ikasberri

7. ARAUTEGIA

Elkarbizitzan laguntzeko hauexek dira bete beharreko arauak:

SARRERAK ETA IRTEERAK

Lehen Hezkuntza

Ikastolara sartzeko ohiko orduak goizeko 09:30ak eta arratsaldeko 15:30ak dira. Umeak lehenago etortzen badira kontuan izan **ez dagoela zaintza zerbitzurik** eta zuen ardurapean geldituko direla.

Ikastolako ateak, sartzeko ordua baino **bost minutu beranduago**, itxiko dira. Tarte horretatik kanpo etortzen direnek, DERRIGORREZ, zuzendaritzara joan beharko dute Honetan zorrotz jokatu dugu denon onurarako. Berandu iristeak, ikasgeletan dauden ume eta irakasleen lana oztopatzen du eta zuen seme-alabak, egunero eta garaiz heltzeak duen garrantziaz ohartaraztea, beharrezkoa ikusten dugu.

HHko hesiko atea, malgutasuna dela eta, irekita mantenduko denez 10 minutu gehiago, DEBEKATUTA EGONGO DA LHko IKASLERIARENTZAT handik sartzea.

Haur Hezkuntza

2 urteko geletan, aldiz, eta bileran aipatu genuen moduan, malgutasunez jokatu dugu.

Beste HHko mailetan 15 minutuko epea izango dute ikastolara sartzeko. Familiak geletaraino lagundu ahalko die.

LHko lana errespetatzeko , **MESEDEZ, EZ SORTU ZARATARIK ETA PASABIDETIK ZUEN ESKUINA MANTENDU!**

Azkenik, kaleko semaforoa errespetatu dezazuela eskatzen dizuegu. Honekin batera, AGURRAK EUSKARAZ EGITEA ASKO ESKERTUKO DIZUEGU, umeengan zuen ereduak eragin handia dauka eta.

a) PASABIDEAK

Gurasoek ezin izango dute, eskola orduetan, hauetatik ibili edo geletara joan premia handiko kasuetan izan ezik.

Ez dira onartzen azken uneko elkarrizketak geletako ateetan. Ohar zaitezte irakaslea zuekin dagoen bitartean ikasleak bakarrik daudela eta lehentasun osoa dutela.

Gurasorik edo arduradunik ume baten bila etortzen bada edo berandu ailegatzen bada, zuzendaritza egoitza pasatu behar du eta atezaina edo zuzendaritzako bat umearen bila edo umea eramatera joango da.

Zerbait esan behar badiozue irakasleari, egizue emailearen bidez edo ohar batekin edota seme-alaben bitartez.

b) HUTS EGITEAK

Hutsegite guztiak justifikatu egin behar dira, emailen bidez edo idatzitako ohartxo baten bidez. Hutsegitearen arrazoia tutoreari jakinarazi behar diozue. Guk eskola- absentismoari buruzko argibidea Administraritzari ematen diogu.

GARRAIATUTAKO UMEEN GURASOEN ERE, autobuseko zaindariari abisatu behar diozue, **DERRIGORREZ**. Berdin, zuek erabakitzen baduzue bere bila etortzea edo arazoren bat izan duelako, egunean zehar ikastolatik joan behar izan badu.

Ikasleren bat eskolak amaitu baino lehen atera behar baldin bada edo ekintza batean parte hartzeko ezintasunik badu, prozedura berbera jarraituko da, hau da, gurasoek edota tutoreek idatzitako ohar batekin jakinaraziko diote irakasleari.

c) JANTOKIA

Ohiko bazkalkideek edozein gorabeheraren berri (huts egiteak, dieta aldaketak...) arduradunari helarazi beharko diote ahalik eta lasterren. Tfno: 651703292, **goizeko 11etatik aurrera, edo bestela e -mailez jantoki@adurtzaikastola.com**

EPEZ KANPO IZENA EMATEN DUTEN BEHIN BETIKO BAZKALKIDEEK, EZ DUTE PLAZA ZIURTATUTA begiraleen ratioan eraginik ez dutelako.

Behar beharrezkoa bada, aukera dago jantokia egun solteetan erabiltzeko, baldin eta lekurik balego eta 48 ordu aurretik eskatzen bada. Izena ematean ordainduko da (5,20€). Bi leku egongo dira HHn eta beste bi LHN. Ezin izango dugu ziurtatu behin-behineko bazkalkide horiek bere gelakideekin bazkalduko dutenik.

Urriaren 8an, arratsaldeko 17,15etan, jantokiko bilera informatiboa izango da. Behar beharrezkoa da bazkalkideen familiak etortzea, informazioa jasotzeko eta guztiok jabetzeko zerbitzu honen funtzionamenduaz, batez ere, araudian eta bere aplikazioan oinarrituta bait dago.

Argi izan beharko dugu, jantokia ez dela, heziketaren kasuan bezala, legezko eskubidea, baizik eta Administrazioak ematen duen zerbitzua eta ikastolak posiblea duela -protokoloari jarraituz- kanporaketak aurrera eramatea. Umeen portaerak jantokiko funtzionamendua oztopatzen badu, horrela egingo da.

SAKELEKO TELEFONOA, ARGAZKI MAKINA,..

Ikasleek **ezin dute** sakelako telefonorik, argazki makinarik, musika tresnarik eta abarrekorik ikastolara **ekarri**. Horrelakorik irakasle batek aurkituz gero, bakarrik senide bati bueltatuko dio. Telefonoz hitz egitea **ezinbestekoa** izatekotan ikastolako telefonoa erabiliko lukete.

Printzipioz, Ikastolan **irakasleek ez dute botikarik banatuko**. Larrialdi bat gertatzea posiblea denean (alergia etab.) , **ezinbestekoa izatekotan**, beharko dira:

- Medikuak sinatutako informea.
- Familiaren baimen idatzia.

d) IKASTOLA ETA FAMILIEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

Ikastola eta familien arteko komunikazioa, aurten ere, emaileen bidez egingo da. Baliabide hau ez edukitezkotan, paperean jasotzeko aukera egongo da. Oso garrantzitsua da korreoa irekitzea informazioa jasotzeko. **Zuen ardura dela gogoratzen dizuegu**. Jantokiko arduraduna, tutore eta zuzendaritza taldekoekin ere, harremanetan egoteko, bide berdinen bidez egin dezakezue.

e) BABESTASUN-ZANTZUAK JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA

“Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurjaritzaren Legearen arabera (otasailaren 18ko 3/2005 Legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun-egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela, hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek bere funtzioak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinaraziko die gizarte- zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari.”

Ikasturte honetan berriak diren familiei, hemendik gutxira, erabiltzailea eta pasahitza emango zaie, baita erabiltzeko orientabideak ere.

Besterik gabe, agur bero bat.

IKASTOLAKO ZUZENDARITZA ETA IRAKASLEOK